

2019ko EKAINAREN 15ean, 9:30ean, UDALETXEKO BILKUREN ARETOAN UDALBATZA BERRIA ERATZEKO EGINIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikularekin bat etorriz, Udalbatza berria eratzeko deialdia egin zaie 2019ko maiatzaren 26ko Toki Hauteskundeetan hautetsita suertatu ziren hautagaiei, aldarrikatze-aktarekin bat etorriz, Balmasedako eremuko hauteskunde-batzordeak bidalitakoa. Hauek dira:

- 1.- Irantzu Ibarrondo Abad and. (EAJ-PNV)
- 2.- Mamen Etxebarria Berasaluze and. (EAJ-PNV)
- 3.- Unai Antón Castelao jn. (EAJ-PNV)
- 4.- Rebeca García Artiach and. (EAJ-PNV)
- 5.- Agustín Cuadrado Torre jn. (EH Bildu)
- 6.- Begoña Martínez López and. (EH Bildu)
- 7.- Daniel Campo Urkidi jn. (EH BILDU)
- 8.- Asier Likona Santamarina jn. (EH BILDU)
- 9.- Alberto Miguel Lambarri Arana jn. (AEI)
- 10.- Germán Gazpio Sampayo jn. (AEI)
- 11.- Jesús María Mena Mauriz jn. (AEI)

Toki erakundearen idazkari eta kontu-hartzailearen laguntzarekin: Esther Santamaría Dolores andrea, ekitaldiaren fede emateko.

Kargu hautetsi guztiak bertan daudela, udalbatza berria eratzeko saioa irekitzat jo da. Hau izan da lehenengo gaia:

1.- ADIN-MAHAIA ERATZEA.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikularekin bat etorriz, Tokiko Udalbatzak jendaurreko bilkuran eratzen dira, hauteskundeak egin eta hogeiei egunera; eta saio horretan, beste ezer baino lehen, adin-mahai bat eratu behar da, ekitaldian dauden hautetsi nagusienak eta gazteenak osatua, eta Udalbatzako idazkaria arituko da idazkari gisa. Hauek osatutako dute adin-mahaia:

Agustín Cuadrado Torre jauna, bilkura honetan dagoen zinegotzi hautetsi zaharrena delako, eta

Rebeca García Artiach andrea, zinegotzi hautetsi gazteena delako.

Udalbatzako idazkari eta kontu-hartzaile Esther Santamaria Dolores andrea izango da idazkaria.

Jarraian, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuarekin bat etorriz (kargu eta funtzio publikoetako zin-egite formulak ezartzen dituen), mahaiburua eta mahaiko beste kide hautetsia karguaz jabetzeko, ekitaldi honetan zin egin edo hitzemango dute karguaren betekizunak Erregearenganako leialtasunez beteko dituztela, eta Konstituzioa bete eta betearaziko dutela, Estatuko funtsezko araua den aldetik.

Hasteko, idazkariak honako hau galdetu dio Agustín Cuadrado Torre jaunari: “Zin egiten edo agintzen duzu, zure kontzientziaren eta ohorearen gainean, zintzo beteko dituzula Soduertako Udaleko zinegotzi-karguaren betebeharrak, Erregearenganako leialtasunez, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuko funtsezko araua den aldetik?”; eta hautetsiak hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”; eta zinegotzi-kargua eta mahaiburuarena hartu ditu.

Jarraian, galdera bera egin zaio Rebeca García Artiach andreari: “Zin egiten edo agintzen duzu, zure kontzientziaren eta ohorearen gainean, zintzo beteko dituzula Soduertako Udaleko zinegotzi-karguaren betebeharrak, Erregearenganako leialtasunez, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuko funtsezko araua den aldetik?”; eta hautetsiak hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”; eta zinegotzi-kargua eta mahaiko kidearena hartu ditu.

Mahaia eratu da, eta ondoren, Udalbatza eratuko da.

2.- UDALBATZA ERATZEA.

Presidentearen aginduz, idazkariak Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluko 3. eta 4. puntuak irakurri ditu, eta horiekin bat etorriz, Mahaiak hautetsien nortasunaren ziurtagiriak egiaztatu ditu, eta hautetsien aldarrikatze-akta oinarri hartuta eta zinegotzi hautetsi guztiak bertan daudela, Mahaiak eratutzat jo du Udalbatza.

Zinegotzi hautetsien kargu-hartzeari dagokionez, hau ezartzen du Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikulua: kargua hartzeko unean, karguaz erabat jabetzeko, hautetsiek dagozkien lege edo arauetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Izangai guztiek dagozkien adierazpen guztiak aurkeztu dituzte (bateraezintasun-kasuak, jarduerak eta ondare-ondasunak, Interesen Erregistroan inskribatzeko) eta batek ere ez du adierazi bateraezintasun-kausaren batek eragiten dionik (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikuluan jasotako betekizuna).

Ekitaldi honetan, presidenteak bertaratu guztiei galdetu die ea bateraezintasun-kausaren batek eragiten dien, aldarrikatzearen ostean sortutakoa, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 6., 7., 177. eta 178. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, eta hautetsi batek ere ez du adierazi ondoren sortutako bateraezintasun-kausaren batek eragiten dionik. Horrenbestez, presidentetzak eratutzat jo du Udalbatza, honako kide hauekin:

- 1.- Irantzu Ibarrondo Abad and. (EAJ-PNV)
- 2.- Mamen Etxebarria Berasaluze and. (EAJ-PNV)
- 3.- Unai Antón Castelao jn. (EAJ-PNV)
- 4.- Rebeca García Artiach and. (EAJ-PNV)
- 5.- Agustín Cuadrado Torre jn. (EH Bildu)
- 6.- Begoña Martínez López and. (EH Bildu)
- 7.- Daniel Campo Urkidi jn. (EH BILDU)
- 8.- Asier Likona Santamarina jn. (EH BILDU)
- 9.- Alberto Miguel Lambarri Arana jn. (AEI)
- 10.- Germán Gazpio Sampayo jn. (AEI)
- 11.- Jesús María Mena Mauriz jn. (AEI)

3.- KARGU HAUTETSIEN KARGU-HARTZEA.

Udalbatza eratu ondoren, karguez erabat jabetzeko unea iritsi da. Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikuluari jarraikiz, hautetsiek Konstituzioari zin egin eta horrekin bat etorriko direla hitzeman behar dute, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuaren 1. artikuluko formularen bidez, baita zinegotzi-karguaren betebeharrak zintzo beteko dituztela eta Konstituzioa bete eta betearaziko dutela ere, Estatuko funtsezko araua den aldetik. Horrenbestez, bertaratu guztien aurrean, eta Hauteskunde Batzordearen ziurtagirietan agertzen diren ordenan, Mahaiak bertaratu guztien zin-egitea jaso du.

Jarraian, hautetsi guztiak izendatu dira, Agustín Cuadrado Torre jauna eta Rebeca García Artiach andrea izan ezik, eta galdera egin zaie, baiezkoa emateko:

“Zin egiten edo agintzen duzue, zuen kontzientziaren eta ohorearen gainean, zintzo beteko dituzuela Sopuertako Udaleko zinegotzi-karguaren betebeharrak, Erregearenganako leialtasunez, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzuela, Estatuko funtsezko araua den aldetik?”; eta hautetsiak “Zin egiten dut” edo “hitzematen dut” erantzun behar du.

Irantzu Ibarrondo Abad andreak (EAJ-PNV) hau erantzun du: “Legezko aginduz zin egiten dut”.

Mamen Etxebarria Berasaluze andreak (EAJ-PNV) hau erantzun du: “Legezko aginduz zin egiten dut”.

Unai Antón Castelao jaunak (EAJ-PNV) hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”.

Begoña Martínez López andreak (EH Bildu) hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”.

Daniel Campo Urkidi jaunak (EH BILDU) hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”.

Asier Likona Santamarina jaunak (EH BILDU) hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”.

Alberto Miguel Lambarri Arana jaunak (AEI) hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”.

Germán Gazpio Sampayo jaunak (AEI) hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”.

Jesús María Mena Mauriz jaunak (AEI) hau erantzun du: “Legezko aginduz hitz ematen dut”.

Zinegotziek kargu hartu ondoren, alkatea hautatzeari ekingo diote.

4.- ALKATEA HAUTATZEA.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraikiz, Udalbatza eratzeko bilkuran bertan alkatea hautatu behar da, prozedura honen arabera:

a) Hautagaiak izan daitezke beren zerrendetako buru gisa dauden zinegotzi guztiak.

b) Horietako batek zinegotzien botoen gehiengo osoa eskuratzen badu, hori izango da hautetsia.

c) Zinegotzietako batek ere gehiengo osoa eskuratu ezean, alkate izendatuko da dagokion udalerrian herritarren boto gehien eskuratu dituen zerrendako buru den zinegotzia.

Horrenbestez, ezarritako prozedurari jarraikiz, presidenteak honako hauek izendatu ditu alkategai:

1.- Irantzu Ibarrondo Abad and. (EAJ-PNV).

2.- Agustín Cuadrado Torre jn. (EH Bildu).

3.- Alberto Miguel Lambarri Arana jn. (AEI).

Ohiko bozketa egin dute, eta hauek izan dira hautagai bakoitzak jasotako aldeko botoak:

1.- Irantzu Ibarrondo Abad and. (EAJ-PNV): bere hautagaitzaren aldeko 4 boto.

2.- Agustín Cuadrado Torre jn. (EH Bildu): bere hautagaitzaren aldeko 4 boto.

3.- Alberto Miguel Lambarri Arana jn. (AEI): bere hautagaitzaren aldeko 3 boto.

Aintzat hartuta hamaika zinegotzi direla eta sei dela botoen gehiengo osoa, hautagaietako batek ere ez du lortu gehiengo osoa. Hortaz, Irantzu Ibarrondo Abad

(EAJ-PNV) andrea izendatu dute alkate, hauteskundeetan herritarren boto gehien eskuratu dituen zerrendako buru den aldetik.

5.- ALKATEAK KARGUA ONARTZEA.

Jarraian, bere eginkizunetan hasi aurretik, apirilaren 18ko 781/1986 LEDren (Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duena) 18. artikuluari jarraikiz, alkateak kargua onartu eta zin egin behar du, Udalbatzaren aurrean.

IRANTZU IBARRONDO ABAD andreak (EAJ-PNV) kargua onartu du Udalbatzaren aurrean, eta “legezko aginduz zin egin” du bere kontzientziaren eta ohorearen gainean, zintzo beteko dituela Sopuertako Udaleko zinegotzi-karguaren betebeharrak, Erregearenganako leialtasunez, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duela, Estatuko funtsezko araua den aldetik.

Irantzu Ibarondo Abad alkate-udalburua alkate karguaz jabetu da, eta saioaren presidentetza hartu ondoren, bertaratuei zuzendu zaie.

Hasteko, eskerrak eman dizkie babesari eman dion eta proiektu erakargarria sortu duen taldeari eta bozkatu duten boto-emalderi; inori ez huts egitea espero du.

Gure ideia, gehitu du, guztion artean egitea da. Legealdi egia, zintzoa, gardena nahi genuen; gainerako hautagaitzekin hitz egin dugu eta elkarrekin lan egiteko prest daudela adierazi digute, denok batera. Ez dugu guk bakarrik lan egin behar, guztion artean egin behar dugu.

Amaitzeko, bere aita etorri zaio gogora, zerutik begira izango dena, eta, hunkituta, hari dedikatu dio bere alkate-izendapena. Manuel Umaran “gure alkatea” ere aipatu du, zeinari batuta hartzen baitio.

Eta guztiei eman dizkie berriro eskerrak.

Beste gairik ez dagoenez, Udalbatza berria eratuta eta behin alkatea hautatuta, Udalbatzaren buruak saioa amaitutzat jo du 09:50ak direnean eta akta honetan guztia jaso da. Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut; baita fede eman ere.